


DROGA. Arifarm testa baliatuta, hiru minututan jakin daiteke pertsona batek drogak kontsumitu dituenetz



JON HERNÁEZ / ARGAZKI PRESS

Uztailaz geroztik dago salgai Arifarm testa farmazietan.

Drogen kontsumoa antzemateko test azkarra salgai dago farmazietan

Hilabete pasa egin du botiketan, baina, botikarien arabera, ez du arrakasta handirik izan

I. Sagarminaga | BILBO

Hilabete pasa darama Euskal Herriko botiketan droga kontsumoa antzemateko testak. Uztailaren 18rako edozein botiketan eros zitekeen testa. Hala ere, Bizkaiko Sendagaien Informazio Zentrotik EGUNKARIAri adierazi diotenez, ez dute datu zehatzik, baina testak ez du arrakasta handirik izan.

Arifarm Test da bere izen ofiziala, eta Arion eta Codifarma laborategiek dute bere ardura.

Hego Euskal Herrian Arifarm Businessen enpresak banatzen du.

Urtebete AEBetako merkatuan

Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) merkatuan urte bat baino gehiago egin ondoren, heldu da Europara drogaren kontsumoa antzemateko testa.

Teknologia guztiz berritzailea dauka: izerdiaren edo gurnuaren bidez antzematen du test horrek droga kontsumitu den ala ez. Arropan uzten den

izerdia baliatzea nahikoa da, droga kontsumitu den jakiteko.

Gurasoentzat bideraturiko testa da, eta ez da beharrezkoa seme-alaben onarpena. Horren bueltan datza arazoa, adituen arabera. Era berean, emaitza baiezkkoa balitz, beste azterketa bat ere egin beharko litzateke. Izan ere, errakuntzak izan ditza; norberak kontsumitu ez arren, kontsumitu duten lekuan izan bada —haxixa erre badute inguruan, adibidez— emaitza positiboa izan liteke.

Gurasoak poliziaren larruan jartzen dituela salatu dute adituek, semeekin komunikazioa sustatu behararren. Beste arazo bat ere bada, adituen ustez: emaitza faltsuak eman ditzake.

Mementoz botiketan bakarrik dago salgai. Sendagaien Informazio Zentrotik azaldu dute ez dela ez osasunerako, ez diagnostikorako produktua, kontsultarako tresna da. Beraz, beste saltokietan ere jar liteke salgai.

ZERTAN DATZA

Teknologia berriak 3 minututan lortzen du emaitza

Arifarm testak erabiltzen duen teknologia berrienetarikoa da. Teknika hori erabiltzen duen lehen produktua da.

ERABILERA. Paper errektibozko zerrendek osatzen dute produktua. Paper zerrenda horiek izerdia (zuzenean edo arropan batean uzten den izerdia) edo gurnua ukitu beharko dute. Ondorioz, paperaren kolorea aldatu egingo da.

EMAITZA. Arrosa koloreko zerrenda bakarra agertzen bada, emaitza baiezkkoa izango da, hots, drogak kontsumitu diren seinale. Bi zerrenda arrosa irtengo balira, ezezkoa. Koloretako zerrendarik agertzen ez bada, testa ez da ondo egin da.

DROGAK. Haxixa, marihuana, eta opioa antzematen ditu opiaceoen artean. Diseinuko drogen artean, estasia, kokaina, heroina, anfetaminak eta *speed*-a antzematen ditu.

ERRAKUNTZAK. Baiezkkoa ateratzen bada ere, emaitza erratuta egon daiteke, horregatik, kontra analisi bat behar du, baieztapena ziurtatzeko.

TAMAINA ETA PREZIOA. 10 zentimetro neurtzen du, eta 60 euro balio du.

DENBORA. Hiru minutu behar ditu Arifarm testak, droga kontsumitu den adierazteko.

ERREAKZIOAK

JUAN DEL ARCO (Bizkaiko Botiken Zentroa)

«Test-aurrekoa bada, ados. Bestela, guztiz kontra»

Bizkaiko Sendagaien Informazio Zentron testaren aurkako iritzia dute. «Ez da metodo zehatza analisi oso bat egiteko. Nolabaiteko arrastoak lortzeko egokia da, hala ere». Familian dagoen harremana errudun eta zainzaile baten artean dagoen harremana ez dela diote. Beraz, «ez da familia giroan erabiltzeko metodo bat. Elkarriketa proposatzen dugu, testa baino gehiago, azken finean, semearekin hitz egin beharko duzu». Familiaren bat testa erabiltzeko prest balego, «famiako harremanak lirateke gaixorik daudenak; test horrek ez ditu harreman horiek konponduko», dio Bizkaiko Botiken informazio zentroko prentsa arduradunak.

MARTIN BARRIUSO (I LAKET!!-eko kidea)

«Gurasoak polizia bihurtzen ditu test horrek»

«Gurasoak polizia bihurtzen ditu test horrek, seme-alabak kontrolatzeko. Azken finean, seme-alaben ardura bultzatu beharrean, gizarte kontrola sustatzen dute. Polizia bidezko kontrola, errepresioa ez da bidea, elkarriketa eta elkar ulertzea bultzatu behar dugu», azaldu dio I Laket!! Droga Erabiltzaileak Arrisku Murrizketaren Alde taldeko kideak EGUNKARIAri. Lehenengo eta behin, elkarriketaren alde daudela jakinarazi zuten, eta gurasoei hori egiteko gomendioa luzatu nahi diete: «Seme alabekin hitz egin behar da». Bestalde, gurasoei informazio objektiboa eskaini behar zaiela uste du talde horrek.

ALICIA SUSO (Euskadiko Gazte Kontseilua)

«Test hori ez da batere aproposa, kontrol neurri bat da»

«Test hori ez da batere aproposa. Kontrol neurri bat da, eta hori normalean ez da lagungarri izaten. Konponbidea guraso eta seme-alaben arteko elkarriketa bultzatzea da», Alicia Suso Euskadiko Gazte Kontseiluko lehendakariaren ustez. «Drogei buruzko tabuak hautsi eta hartu-emanak bultzatu behar dira, eta elkarrekin hitz egiten hasi», uste du Alicia Susok. Drogen kontra hartu beharreko neurriek hezitzaileak izan behar dutela uste du. Test horrek guraso eta seme-alaben arteko harremana gaiztotu dezakeela ohartarazi du. «Testa baino gehiago, elkarriketa eta neurri hezitzaileak bultzatu behar dira», dio.

EUSKO JAURLARITZA

«Testaren neurri hori guztiz diktatoriala da»

Eusko Jaurlaritzako droga menpekotasunaren departamentutik azaldu duteenez, «guraso eta seme-alaben arteko elkarriketa da bidea, testa bezalako neurriak hartu beharrean». Seme-alabekin komunikazioa, elkarriketa eta hartu-emanak izatea behar beharrezkoak direla azaldu zuten, «pertsonaren heziketa on baterako oinarritzko baldintzak dira». Testaren neurri hori guztiz «diktatoriala» dela uste dute. «Izan ere, egin beharreko galdera hurrena da; zer lortzen dugu neurri hori hartuta? Seme-alabak aldentzea. Drogen eragina murriztea dugu helburu, eta lortzeko bidea heziketa da; familiatik hasi eta heziketa sistemara arte».